

IPARRALDEKO INAUTEAK, AURTENGO HIRU ADIBIDE

Iparraldea aipatzen dugunean, frantses administrazio peko Euskal Herriaz ari gara, hau da, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa herrialdeez. Hiruak euskaldunak dira, baina haien artean badituzte alde handiak, horregatik ezin dugu Iparraldeko inauteriaz mintzatu gauza bakar bat bailitzan, badira hiru inaute mota, haien interferentziekin eta haien ezaugarri bereziekin. Horixe izanen da segidan jorratuko dudana. Horretarako aurtengo hiru adibide hartu ditut: Zuberorako Altzürükü herriak jokatu duen lehen maskarada, Lapurdirako Urruñako kaskarotak eta Zarpantzarra eta Nafarroa Behererako Donibane Garaziko libertimendua. Horratx!

1. Altzürüküko maskarada

Aurten Altzürükü dugu Zuberoako maskaradak antolatzen ibiltzen den herria, eta entzun dugunez heldu den urtean bi herri izanen dira jardun horretan ibiliko direnak: Barkoxe eta Aloze. Osora hamabi maskarada izanen dira aurten herriz herri jokatu dituztenak. Lehena, antolatzaile den herrian, hau da, Altzürükün, otsailaren 9an. 16an Irurin, 23an Ezpeize-Ündüreine, 29an Gamaren, martxoaren 7an Idauze-Mendin, 14an Maule-Lextarren, 21ean Santa Grazin, 28an Aloze eta Atarratzen, apirilaren 5ean Larrainen, 12an Barkoxen, 19an Muskildin eta 26an bukatzeko Urdiñarbe eta Altzürükü herrien artean den Garaibi auzoan.

Altzürükü betidanik izan da herri maskarada zale, horrelakoa antolatzeko beti prest izan den herria. Horrela, jakin badakigu, 1925ean maskarada ederra antolatu zutela; eta geroztik, 1933an, 1938an, 1951n, 1957an, 1968an, 1972an, 1979an, 1992an eta 2005ean. Beraz, 1925etik gaurko egunera, eta aurtengoa kontatu gabe, hamar maskarada antolatu dituzte. Ez da makala altzürükütarren lana eta maskaradarekiko erakutsi duten atxikimendua. Azken maskarada eman zutenez geroztik hamabost urte pasatu dira jadanik.

Aurtengo lehenen, lehen erran bezala, otsailaren 9an izan zen, eta lehen maskarada ikustea maite dudanez, Altzürükü aldera abiatu nintzen lagunekin batera. Aro ezin ederragoa zen. Hotzik ez, eta liliak eta kimu berriak nonahi sortzen. Udaberrian ginela zirudien. Goizeko 9,30etan lehen barrikada izan zen herriaren sartzean. Ordurako jende ainitz bazen, eta entzuten genuen euskarak salatzen zuen bezala, Euskal Herriko hamaika bazterretatik joandako euskaldunak zirenen. Lurrean arnoz, sagarnoz edota pattarrez betetako botoi-lak ipini zituzten barrikada gisa, eta aitzindariak lehen aldiz bertan dantzatu zuten. Bühame koloretsuek bereak eta bost egin zituzten ondoren. Eta gero maskaradakoak hasieran, eta gero gainerako guztiak, jan-edariz mukuru zen mahaira hurbildu ginen. Han baziren bizkotxak, kausherak, moletak, kafe beroa, arnoa, likoreak eta bestelako ugari. Jan eta edan ondoren lehen kantua entzun genituen.



Aitzindariak



Beltzek bizkarrean eramaten dituzten mezuak

Lehen barrikada horretaz gain, bost gehiago izan ziren: Jेतarenean, Erregia izeneko tokian, plaza gibelean, Barrikata auzoan, eta bukatzeko herriko plazan. Osora sei barrikada egin zituzten, eta seietan beti prozesu bera errepikatu zuten: botoilez egin barrikadak, aitzindarien dantzak, бүhameen basa jokoa, jan-edatea eta Zuberoako kantu ederrak.

Aipatu beharra dago, maskaradan tropa handiak parte hartu zuela, gazteek zein haurrek, osora berrogeita hamar inguru, ene irudikoz. Dantzari on eta trebe ainitz baziren, horregatik aitzindariak errepikatuak ziren, alde batetik denak mutilak ziren, kantiniersa barne, eta bestaldetik denak neskak. Beraz aukera bazuten dantza ederrak emateko. Zamalzainak Mattin Eperre eta Nathalie Jauri ziren, entseinariak Adrien Aranburu eta Joana Karrika, gatüzainak Pette Keheille eta Maia Jaragoihen, txerreroak Mixel Jaragoihen eta Gabriela Ager eta kantiniersak Mael Arla eta Maider Jauri.



Mattin Eperre zamalzainarekin



Godaleta gainean. Argazkia: Karmele Yarto

Goizeko barrikaden ondoren, jendea arraboteko izkina batean jarritako kantinan bildu ziren, solasean, jan-edanez eta kantu zirimolan. Aspaldi ikusi gabeko adiskideekin mintzatze-ko tenore ederra izaten da hau.

Arratsaldeko 4etan arratsaldeko saioari hasiera eman zioten. Ordurako ainitz jende gehiago bertaratua zen eta jadanik pilota-plazaren bazter guztiak betetzen zituzten arizaleen zain zirela. Agertokia ikusgarria zen, pilota-plaza eder eta zabala, eskuinean Ürrütia izeneko jauregi ezin ederragoa, eta ezkerrean, muino ttipi baten gainean, hiru puntako ohiko eliza zu-berotar ikaragarri handia. Azken honen inguruan hilerriko

hainbat gurutze eta hilarri ikus zitezkeen. Hortxe, agertoki paragebe horretan, udaberriko aroan, hemezortzi gradu termometroaren arabera, eta jende giro animatu ederrean eman zuten bi oren eta erdi inguru luzatu zen maskarada ederra eta alegera. Bukaeran, ohikoa den bezala, azken kantua eman zuten eta ondoren muñeinak eta aintzina-pika. Hortxe nahasi ginen denok dantzan, altzürükütarrak eta gainerakoak.

Buka dezadan aurtengo maskarada egiten duten gazte altzürükütarrak zorionduz, herrian egin zuten lehen maskarada-saio hori bezain bikaina atera dakizkien gainerako guztiak. Horixe da, bederen, nire desira.



Aitzindariak pilota-plazara sartzen



Altziürüküko eliza ederra

2. Kaskarotak eta Zanpantzar Urruñan

Otsailean ginen eta jadanik euskal inauteak eztanda egina zuen Euskal Herri osoan. Ituren, Zubieta eta Aurtitzeko joal-dunek hastapena eman zioten, joareak joz eta isipuak astinduz izpiritu eta indar gaixtoak uxatzen, eta geroztik gure geografia osoan errepikatu ziren antzeko erritual zaharrak (eta horren zaharrak ez diren beste batzuk ere): santibateak, kaldereroak, inudeak eta artzainak, maskaradak, libertimenduak, kaskarotak...



a. Kaskarot Eguna. Urruñan, otsailaren 8an, larunbatarekin, aterra ziren kaskarotak, eta haiekin batera, hartz adarduna, zirtzilak, ponpierrak, kotilun gorriak... eta bestelako pertsonaia alai eta koloretsuak. Urtero, goizez, auzo batean ateratzen dira eta arratsaldez herrian ibiltzen dira, arratsean ostatu batean antolatzen duten afarian bukatzeko. Aurten Pausu (Behobia ere deitua) auzoan barna ibili ziren. Goizeko 10,30ean Xaia ostatura iritsi ziren, adarrez eta hostoz apaindutako traktore batek zeraman organ, eta jadanik jende ainitz bazen haien aiduru. Ate aitzineko zabaldian kaskarotek dantza airosak egin zituzten, eta hartzak eta zirtzilek, anartean, era guztietako bihurrieriak. Horrela da usaia.

Konpartsan lehen aipatu pertsonaiez gain, osora hogei bat, bazihoazen hiru musikari trebe: Kitti Borda soinu-jolea, Sebastian Otaburu arrabita-jolea eta Paskal Santesteban tabalaria eta baita bi bertsolari ere: Aimar Karrika eta Odei Barroso. Xaia ostatuko atean bi arduradunak ziren, Beñat Elizondo eta Nelly Constatin, eta dantzak bukatzean, barrura sartzeko gonbidatu zituzten. Mahaiak prest zeuzkaten, ongi hornituak: sagarinoa, arnoa eta ostatu horretan horren ohiko eta ospetsuak diren bakalau-moletak. Eta berehala, tragu eta mokaduren artean, hasi ziren lehen koplak eta lehen bertsoak.

Bertsolariek hiruna bertso egiten zuten, eta gero konpartsako guzti-guztiek honako errepikaz erantzuten zieten: *Etixerik etxe, auzorik auzo, atez ate, pausoz pauso. Kanpoko hotzak erraiten digu barnean dugula goxo*. Ostatura jadanik jendez lepo zen, eta hurbildatukoek bertsoen bukaerak eta aipatu errepika ozenki abesten zituzten. Eta horrela oren batez. Hamabietan, Xaiatik atera, mahai eta botoila guztiak hustu ondoren, eta herriko plazara joan ziren. Han gauza bera egin zuten Batika ostatuaren aitzinean, eta gero barruan bapo bazkaldu.

Arratsaldeko saioa antzekoa izaten da, ostatuz ostatu eta atez ate kantari, eta gauean, lagun arteko afaria eta ohiko bertso eta kantuak. Horrela pasatu zen aurtengo Kaskarot Eguna Urruñan.



Kaskarotak karrikaz karrika

b. Zanpantzar Eguna. Otsailaren 15ean, larunbatarekin, ohiko Zanpantzar Eguna izan zen Urruñan. Arratsaldeko 4,30etan hastekoa bazen ere, 4etarako plaza jendez mukuruzen, eta plaza erdian Zanpantzar irudikatzen zuen panpina zegoen. Aurtien emakume itxuraz, ile luze-luzea eta horihoria. 4,30etan Zanpantzar konpartsa plazara iritsi zen. Aitzinean Bidasoako joaldunak zetozen, gero kaskarotak, eta ondoren zirtzilak, kotilun gorriak, hartza eta aker beltza. Osora berrogeita hamar lagun inguru. Joaldun buruak ada-

rra jotzen zuen eta den-denak joare handiak erritmikoki astinduz, herrian barna ibili ziren, pilota-plazaraino joanez eta itzuliz gero.

Halako ibilaldi zaratatsua egin ondoren, berriz ere, plaza-
ra iritsi ziren, eta hantxe Zantantzarren inguruan ibili ziren
buila handia sortuz. Gero kaskarotek hainbat dantza egin zu-
ten: *makilttiki-dantza* eta abar. Zirtzilek, berriz, *Oi Pello Pe-
llo* doinuaz Urruñan horren ohikoa den dantza egin zuten,
makilez lurra, behin eta berriz, astinduz. Aipatu behar da,
Urruñan mutilak kaskarot direla eta neskak zirtzil. Hartza,
aker beltza eta kotilun gorriak, anartean, jendea zirikatzen
ibili ziren. Gero, *zapatazain-dantza* famatua egin zuten,
arrakasta handiz eta ikusleen irri algarak sortaraziz.

Halako batean, beltzez jantzitako epailea azaldu zen eta
Zantantzarri aurtan leporatzen zizkioten hobenak zerrenda-
tu eta ozenki irakurri zituen. Hobenak aipatzean, konpartsa-
ko gazteek egoera horiek maisukiro antzestu zituzten alga-
rak eta haserreak piztuz. Zantantzarren aitzinean baziren
hogeita hamar bat haur inguru, eta hauek izan ziren heien
haserrealdia berehala erakutsi zutenak: *Zantantzar erre!!!*
—behin eta berriro oihukatuz. Horrela bada, kaskarotek su
eman zioten Zantantzarri eta segidan, den-denak,
konpartsakoak eta publikoa suaren inguruan etengabea
dantzatzen hasi ziren: *dantza jauziak*, *zortzikoa*, *esku-dan-
tza*, *zango-dantza* eta bukatzeko *fandango* eta *arin-arin*
bizi-biziak. Dantzak bukatu zirenerako, ez zen Zantantza-
rrik, errauts meta bat baizik.



Gero geroakoak, jendea plazako ostatueta hurbildu zen, eta baita urrunago den Arotzenia famatura ere, eta hantxe ibili ziren solasean, kantatzen eta dantzatzen gaueko oren ttipietan erretiratu ziren arte. Horretaz gain, Pausu auzoko Xaia ostatuan, konpartsakoek bazuten sorgin-afaria eta bertan izan ziren goxo-goxo eta kanta-kantari, aurtengo balentriak elkarri kontatuz eta heldu den urtekoak jadanik prestatuz.

Aurtengo ihauteria bukatua da Urruñan, baina oroitzapen polita utzi du urruñarren artean. Bi gerla handiekin, Lapurdi osoan gertatu zen bezala, ihauteria eta beste ekitaldi ainitz, desagertu ziren. Ez zegoen umorerik horrelakoak egiteko, eta gainera gizartea guztiz eraldatua atera zen aipatu bi gerletatik. Duela hamar bat urte, Hazia eta Berttoli elkarteek berrito antolatzeari ekin zioten, eta arrakasta handiz, urtez urte handitzen doan arrakastaz, gainera. Euskara bizi-bizirik dago urruñar gazteen artean, eta ekitaldi guztia, baita beraien solasak eta jokoak ere, euskaraz egin zituzten. Euskal Herriak bizi nahi du, eta euskaldun jarraitu nahi du, eta urruñar gazteak ditugu delibero horren adibiderik onena.



Parte-bartzaile guztiak



Kaskarotak eta zirtzilak

3. Donibane Garaziko libertimendua

Aurten ere, libertimendu urtea dugu. Donibane Garazikoaz gain, Luhuson, Amikuzen, Iruñean eta Esnazun egin edo egitekoak baitira. Hau pizkunde baten seinalea dugu, Nafarroa Behereko ihaute besta mota hau luzaz galdurik izan baita. Bi Gerla Handiek gainbehera handia ekarri zuten Iparraldeko hiru lurraldeetara, euskararen transmisioa ia erabat moztu arte, eta euskararekin batera euskal gizartearen akabera. Betiko bizimodu tradizionala desagertu zen, kultur usai zaharrak ahanzi, bertako biztanleriaren frantsestea nagusitu eta euskaldun izate beraz nolabaiteko ahalke kolektiboa zabaldu. Herri oso baten bukaera zela zirudien. Herio ezkilak entzuten hasiak ziren.

Baina bat-batean nonahi altxatu ziren euskal seme-alabak, eta arlo guztietan gainera. Eta horrela hainbat belaunaldi berriren eguneroko lan eta sakrifizioari esker, hilzorian zen herria, berriro pizten eta indartzen hasi zen. Ikastolak zabaldu ziren, mugimendu abertzalea piztu, euskal kulturaren aldeko engaiamendua hedatu... Ainitz izan ziren eta dira horretan zebiltzanak eta dabilztanak, lan isilean, lan gogorrean..., baina abilki eta azkarki jokatu. Behin behinekoz herio ezkilak isildu dira, eta euskaldunendako etorkizuna hodei beltzen artetik ilkitzen ari da.

Inauteria arrunt galdua zen Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Pittaka-pittaka maskarada pizten eta indartzen hasi zen berriz, Lapurdin kaskarotak eta Zarpantzar itzuli ziren, baina Behenafarroan hutsune handia zen. Bazirudien jatorrizko inautea desagertua zela betiko. Haatik, azken hamabost urteetan, emeki-emeki hasieran, libertimendua pizten hasi zen Garazi aldean, eta lehen garai haietan ttipia eta indargea zen sua handitzen eta indartzen hasi zen, gaurko sugar ederrak sortu arte. Azken bizpahiru urte hauetan liberti-

menduak sekulako ospea hartu du, eta jadanik, sare moduko bat eratzen ari da.



Libertimenduaren kasuan izan dira sua pizten eta hedatzen aritu direnak. Antton Luku dugu, zalantzarik gabe, pizkunde honetan pertsonarik garrantzitsuenak, berak piztu baitzuen duela hamabost bat urte (edo agian gehiago) libertimenduarekiko jarrera. Donibane Garaziko lizeoan euskara irakasle izan zen luzaz, erretretan sartu arte, eta euskara eta euskal kultura erakustez gain, euskal antzerki tailer bat antolatu zuen bertako ikasle euskaldunekin, kultur ekitaldi aintzetarako harrobi aberatsa izan dena. Berak erein zuen berriro libertimenduaren hazia, eta iduri denez, lur emankorretan zuen erein, gaurko fruitu ederrak ikusita. Antton Luku etengabeko ekintzailea izan dugu, langile porrokatua, praktika eta teoria ederki uztartzen jakin dituenak. 2014an,

Pamiela argitaletxearen bidez plazaratu zuen *Libertitzeaz* izeneko liburu mardula dugu Lukuren lan eskergaren isla eta ondorio. Liburu horretan, lanean egindako eta hausnartutako gogoetak eta hautuak irakur ditzakegu, eta ezinbesteko erreferentzia bilakatu zaigu herri antzertiaren arloan. Merezimendu handiko gizona!



Baxenabar inauteak bi zati ditu nagusi: Santibateak eta Libertimendua. Lukuk erraiten digunez, santibateek negua-
ren garaipena adierazten digute. eta lehen otsailaren 2an,
3an eta lauan ospatzen zuten, hau da San Bladi, Santa Aga-
taren bezpera eta Santa Agataren egunetan. Gaur ere, egun
horien inguruko asteburuan ospatzen dituzte. Zirtzilen
jokoa da nagusi egun horietan. Baliteke Santibate hitza San-
ta Agateren aldaera bat izatea. Itxura guztia du, bederen. Bi-

garren zatian, hau da, libertimenduan, udaberria da garaile, eta bolanten jokoa da nagusitzen dena.

Niri dagokidanez, azken hamar urteetan hurbildu naiz Donibane Garazi aldera inaute eder honetaz gozatzeri, eta urtez urte, hazten eta handitzen ikusi dut. Aurtengo hitzordura ere bertaratzeko aukera izan dut. Horrela, otsailaren 23an, igandearekin, hainbat adiskidarekin batera, Garazi aldera abiatu nintzen. 9,15etarako han ginen. 9,30etan karrika nagusiko goiko aldean bildu eta hortik abiatu ziren, maldaz beheiti. Hasieran bi marixal zaldiz, gero zapurrak, ziganteak, bolantak, andere xuriak, bertsolariak eta musikariak eta bukaeran zirtzilak oihukatzen eta bazterrak adaxka luzeekin astintzen.



Bolantak airean dantzan. Argazkia: Marian Aiala

*Zapurak eta ziganteak*

Ederra da ibilaldi moduko hau, eta Donibane Garazi ederreko karrika estuetatik barrena izanki, oraindik ederragoa. Merezi du ikustea eta haien bizipozaz kutsatzea. Hamarretarako harresi ondoko merkatuan ginen eta han, orain estalita dagoen agertoki paregabe horretan gauzatu zuten libertimenduaren saio nagusia, urtero bezala. Ordurako merkatu inguru guztia ikusleez gainezka zegoen. Ekitaldi honek, ontsalaz, bi oren eta erdi irauten du, etenik gabe, baina izaten dira tartekatzen diren ekintzak: dantzak, bertsoak eta antzeppen herrikoiak. Aurtengo bertsolariak Aimar Karrika luzaidarra eta Amets Arzallus hendaiarra ziren, biak pixkor eta

alai, sekulako saioak egin zituztenak. Haien lana gertatzen ari denaz mintzatzea da, hau da, giroa umorez berotzea. Antzezpenetan urtean zehar gertatutako kontuak jorratzen dira. Aurtengoak, besteak beste, Miarritzeko G7 delakoaren bilkura eta kontrako antolamendua, Pirinioetan sartzen ari diren hartzen inguruko afera, EHZ gazte musikaldia, Hegoaldetik datozen gazteen euskañol ulergaitza, martxoko hauteskundeak... eta beste hainbat kontu. Den-denak modu bizi-bizian eta irringarrian jokatu zituztenak.

Bukaeran, neguaren eta udaberriaren arteko borroka sinbolizatzen duen zirtzil eta bolanten arteko norgehiagoka antzeztua. Udaberria atera zen garaile, espero bezala, eta amaitzeko hainbat dantza egin zituzten. Dantza horietara herritarrak eta gainerako ikusleak ere, sartzen dira beti. Musika isiltzean, jendea ostatura hurbildu zen zerbait edatera eta lagunekin giro goxoan mintzatzera. Ondoren izan zen herri bazkaria, arratseko 6ak arte luzatu zena. Hauxe izaten da urteroko egitaraua. Zinez, merezi du Garazira hurbiltzea eta libertimenduaz gozatzea. Eta zuk, irakurle, ez baduzu inoiz libertimendua ikusi, idatz ezazu ekitaldi honen berri zure agendan, eta heldu den urtean, hurbil zaitez Donibane Garazira edota Nafarroa Behereko beste herrietara, euskal inaute aberatsaren ekinbide eder hau ezagutu dezazun. Ez zara damutuko!

Joseba Aurkenenerena Barandiaran
Urruñan, 2020ko martxoaren 2an